



Elorrio, 2019ko urriaren 7a

Amgala proiektua, Elorrioko Lajwad elkarte, Elorrioko institutua eta Elorrioko Txintxirri ikastolaren artean garatzen den elkartasunezko proiektua da. Hauxe da helburu orokorra: **herri saharaiak errefuxiatuen kanpamenduetan pairatzen duen bizimoduaren berri ematea eta gure laguntza eskaintzea**. Proiektuaren helburu orokor honen helburu zehatzak hauexek dira:

- a. Saharaiuen kultura eta bizi ohiturak ezagutaraztea.
- b. Tindouf-eko saharaiuen kanpalekuetan dauden errefuxiatuen egoera zein den ezagutzea eta aldarrikapenak ezagutaraztea.
- c. Gure herrian saharaiuen egoera adierazi eta herritarrak inplikatztea.

Azken urteetan, kanpalekuetako familiei ortuak egiten lagundu izan diegu eta ur deposituak berriztatzen ere lagundu dugu. Ikasturte honetan ildo berdinetik jarraituko dugu ahalik eta familia gehienak laguntzeko asmoz. Baina, oraingo honetan, abenduan, Saharaiuen kanpalekuetara bidaiatuko dugu. **Bidaia azaroaren 29tik abenduaren 7ra** izango da. Bertan beste kultura bat ezagutzeko eta beraien eguneroko bizitzan laguntzeko aukera bikaina.

Ondo dakizuen moduan aipatutako kanpalekutan bizi direnek guztiaren beharra dute eta gure bidaiaren helburuetariko bat guk hemen erraz lortzen duguna beraiei helaraztea ere bada.

Jadanik hainbat material dugu baina momentu honetan kanpalekuetan bisitatuko ditugun eskolentzako materiala behar dugu. **Zuen laguntza eskatzen dugu**, beraz, honako materialak biltzen joan gaitezten:

Eskola materiala:

- Boligrafoak, arkatzak, borragomak
- Margoak,
- Koadernoak (pisua garrantzitsua da bidaiari, beraz, espiraldun koadernorik ez eta tapa gogorra dutenak ez)
- motxilak
- estutxeak
-

Material hau guztia ikastolako sarreran egongo den kutxa batean utzi ahal izango duzue.

Bilketako epea: azaroak 1.

Zuen laguntza eskertuz,

Amgala Taldea